## EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA, LEIZARANGO BASOAK 1.031.2 zk. HERRI ONURAKO MENDIAREN B21 ETA B24 UNADETAN BIRLANDATZEKO LANAK ARAUTUKO DUENA.

### 1.- OBJEKTUA.

Agiri honek arautuko ditu LEITZARANGO BASOAK 1.031.2 zk. herri onurako mendiaren B21 eta B24 unadetan (Ameraun parajea) 29,72 ha-ko azalera birlandatzeko lanak. Unada horietan, *Pinus radiata* espeziearen mozketak egin dira, eta horiek birlandatzeko lanak esleitu nahi dira. Agiri honetan lurra prestatzeko, zulatzeko eta landatzeko lanak jasotzen dira, baita erabili beharreko landarearen zehaztapena ere.

## PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁN LOS TRABAJOS DE REPOBLACIÓN DE LOS RODALES B21 Y B24 DEL MONTE DE UTILIDAD PÚBLICA Nº 1.031.2 LEITZARANGO BASOAK.

### 1.- OBJETO.

El presente pliego regirá los trabajos de repoblación de una superficie de 29,72 ha de los rodales B21 y B24 (paraje Ameraun) del monte de utilidad pública nº 1.031.2 LEITZARANGO BASOAK. En los citados rodales se ha realizado una corta a hecho de P. radiata y se pretende adjudicar la repoblación de los mismos. En este pliego se recogen los trabajos de preparación del terreno, ahoyado y plantación, así mismo se recoge la especificación de la planta a utilizar.



B21 eta B24 unaden kokapen planoa.

Plano de localización de los rodales B21 y B24

## 2.- ALDEZ AURREKO ESKUZKO EKINTZA.

Aldez aurreko ekintza fasean, sastrakak moztuko dira eta mozketaren hondakinak multzotan pilatuko dira, betiere, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren iritziz, distantzia nahikoa utzita multzoen artean, kendu behar den sastraka eta mozketa hondakinak kontuan hartuta.

Pilaketak ez dira inolaz ere egingo erreken gainean. Aldez aurretik aprobetxatu ez diren espezie autoktonoen zuhaiztiak, eta zuhaitzak errespetatuko dira.

Haien inguruan leku nahikoa utziko da landatu gabe zuhaitzak bizirauteko.

Salbuespen gisa oin isolaturen bat moztu behar bada, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak berariaz adieraziko du.

Berdin jokatuko da oin horietakoren bat inausi behar denean, landaketaren iraupena ziurtatzeko.

Fase honetan ez da makina autopropultsaturik erabiliko, eta eskuz egingo dira lanak.

Pista batzuen ertzetan makinarekin jardun da aldez aurretik pistatik, prozesadorearen mozketa hondakinak lekualdatzeko. Gune horiek ez dira garbituko, baina landatu egingo dira.

## 2.- ACCIÓN PREVIA MANUAL.

En la fase de acción previa se cortará y recogerá todo el matorral y los restos de corta, apilándose en forma de montones de modo que a juicio del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats haya suficiente distancia entre los mismos teniendo en cuenta la cantidad de broza y restos de corta a eliminar.

Los montones en ningún caso se realizarán sobre las regatas existentes. Se respetarán los bosquetes, golpes o árboles individuales de especies autóctonas que no han sido objeto del aprovechamiento previo. Se dejará alrededor de éstos espacio suficiente sin plantar para la pervivencia de los mismos. En el caso de que excepcionalmente deba derribarse algún pie aislado será indicado expresamente por el Servicio de Montes y Gestión de Hábitats. De la misma manera se procederá en el caso de que alguno de estos pies deba ser podado para asegurar la pervivencia de la plantación.

No se utilizará en esta fase ninguna máquina autopropulsada siendo manual la ejecución de los trabajos.

En los márgenes de algunas de las pistas se ha efectuado la labor de acción previa con máquina desde la pista con el objeto de desplazar los restos de corta de la procesadora, estas zonas no serán objeto de limpieza pero sí se plantarán.

## 3.- ESPEZIEA AUKERATZEA, LANDAREAREN DESKRIBAPENA, ZULAKETA ETA LANDAKETA.

### 3.1– Espeziea aukeratzea eta landarearen ezaugarriak.

Birlandatzeko hautatu diren espezieak *Quercus robur* eta *Fagus sylvatica* dira, espezie nagusi gisa, eta *Fraxinus excelsior, Prunus, Betula, Sorbus, Pyrus, Malus* eta abar, espezie laguntzaile gisa. Espezie laguntzaileak, lizarra izan ezik, baso administrazioko mintegitik hornituko dira.

Guztira, 28.234 landare aurreikusten dira, horietatik, 25.000 ale enpresak jarriko ditu, espezieen eta jatorrien zerrenda honen

## 3.- ELECCIÓN DE ESPECIE, DESCRIPCIÓN DE LA PLANTA, AHOYADO Y PLANTACIÓN.

### 3.1- Elección de especie y características de la planta.

Las especies escogidas para la repoblación son *Quercus robur* y *Fagus sylvatica* como especies principales y *Fraxinus excelsior, Prunus, Betula, Sorbus, Pyrus, Malus* etc. como especies acompañantes. Las especies acompañantes a excepción del fresno las aportará la administración forestal de su vivero.

El número total de plantas estimado es de 28.234, de éstas la empresa aportará 25.000 según la siguiente relación de especies y

arabera: 20.000 bertako haritz (*Quercus robur*), 3.000 pago (*Fagus sylvatica*) eta 2.000 lizar (*Fraxinus excelsior*).

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da landareen horniduraz, eta zer material erabiliko den jakinaraziko zaio Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuari, jatorrizko mintegia adierazita. Administrazioak landarea ikuskatu ahal izango du adjudikaziodunak proposatutako mintegian, eta, nolanahi ere, osorik aztertuko da mendira iristean. Sortak homogeneoak izango dira. Eskatutako kalitatearekin bat ez datozen sortak baztertu egingo dira eta aldatu egin beharko dira.

Gutxieneko tamaina 40 cm-koa izango da, landarearen hosto puntatik sustrai leporaino Landarea sustrai hutsekoa izango da, eta, ahal bada, bi urte izango ditu. Landarea geratze aldian egongo da. Aireko zatiaren eta sustraiaren artean orekatuta egongo da, eta sustraiak faszikulatuak eta ondo eratuak egongo dira. Ez da onartuko zurtoin askotako landarerik, ezta sustrai okertuak dituenik ere.

Nahitaezkoa da jatorri hauetako erreprodukzio material identifikatua erabiltzea:

***QUERCUS ROBUR***. Nafarroako eta Euskal itsasertzeko 5. eskualdea lehenetsiko da jatorri gisa; zuhaitz urtabezkoa dela eta, ezinezkoa bada jatorri horretako behar beste landare lortzea, Kantauri aldeko erdiko mendikateko 3. eskualdea onartu ahal izango da.

***FAGUS SYLVATICA.*** Nafarroako eta Euskal itsasertzeko 7. eskualdea lehenetsiko da jatorri gisa; zuhaitz urtabezkoa dela eta, ezinezkoa bada jatorri horretako behar beste landare lortzea, jatorri eskualde hauek onartu ahal izango dira: Aralar Mendilerroa (8. zk.), Pirinioen Mendebaldea (9. zk.) eta Asturias-Kantauriko itsasertza (4. zk.).

***FRAXINUS EXCELSIOR.*** Nafarroako eta Euskal eskualdeko 6. eskualdea lehenetsiko da jatorri gisa; zuhaitz urtabezkoa dela eta, ezinezkoa bada jatorri horretako behar beste landare lortzea, jatorri eskualde hau onartu ahal izango da: Nafarroako eta Euskal itsasertza (7. zk.).

procedencias 20.000 robles del país (*Quercus robur*), 3.000 hayas (*Fagus sylvatica*), 2.000 fresnos (*Fraxinus excelsior*).

La planta será suministrada por la empresa adjudicataria, se notificará al Servicio de Montes y Gestión de Hábitats el material a emplear indicando el vivero de procedencia. La planta podrá ser inspeccionada por la administración en el vivero propuesto por el adjudicatario y, en todo caso, será examinada en su totalidad a su llegada al monte. Los lotes deberán ser homogéneos. Aquellos lotes que no se ajusten a la calidad exigida, serán rechazados y deberán ser repuestos.

El tamaño mínimo será de 40 cm desde el ápice de la planta hasta el cuello de la raíz. La planta será a raíz desnuda y preferentemente de dos savias. Deberá estar en parada vegetativa. Tendrá un adecuado equilibrio entre la parte aérea y la parte radical con la raíz fasciculada y bien desarrollada. No se aceptarán plantas de tallo múltiple ni las que tengan un sistema radical con fuerte curvatura.

Es obligatorio emplear material de reproducción identificado de las siguientes procedencias:

***QUERCUS ROBUR* se preferirá** la región de procedencia nº 5 Litoral Vasco-Navarro, en caso de que la vecería de la especie haga imposible conseguir la planta de esa procedencia en la cantidad necesaria podrá aceptarse la región de procedencia nº 3 Cordillera Cantábrica Central.

***FAGUS SYLVATICA* se preferirá** la región de procedencia nº 7 Litoral Vasco-Navarro, en caso de que la vecería de la especie haga imposible conseguir la planta de esa procedencia en la cantidad necesaria podrían aceptarse las siguientes regiones de procedencia: nº 8 Sierra de Aralar, nº 9 Pirineo Occidental, nº 4 Litoral Astur-Cantábrico.

***FRAXINUS EXCELSIOR* se preferirá** la región de procedencia nº 6 Región Vasco-Navarra, en caso de que la vecería de la especie haga imposible conseguir la planta de esa procedencia en la cantidad necesaria

Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren aholkularitza teknikoa izango du enpresak, landarearen egokitasunari eta erabilgarritasunari dagokienez. Ez da ugalketa materialen jatorria aldatzea aurreikusten, baina baliteke kantitateak aldatzea, mintegietan espezieren bat ez dagoela aurreikusita. Hori guztia egiteko Mendiak eta Habitatak Kudeaketako Zerbitzuaren aldez aurreko baimena behar da.

**3.2- Zulaketa eta landaketa.**

Landaketa markoa 3 m x 3 m-koa izango da. Landaketa ilarak mendi-hegalaren aldapa handieneko lerroaren noranzkoan lerrokatuko dira. Saihestu egingo dira harrizko zonak eta lehendik dagoen landarediaren estalki probablea duten eremuak. Lerro bakoitzean espezieak modu ez uniformean nahastuz egingo da landaketa. Landaketaren marko teorikoa 3x3 bada ere, lehengoratze naturala errespetatzeko irizpidea nagusitzen da, eta horrek murriztu egingo du behar den landare kopurua; kopuru hori, gehienez, 950 landare/ha izango da.

Zuloak eskuz egingo dira, 40 x 40 x 40 cm-koak. Lurra mugitu ondoren, azken 20 cm-ak zulo berean utziko dira, eta gainerako lurra mazelaren goiko aldean utziko da, landaketa lanak errazteko.

Landarearen hornidura ez badator bat landaketaren erritmoarekin, mendian bertan mintegiratu beharko da. Horrela, 40 cm-ko sakonerako zanga bat irekiko da eta landare fardelak linealki banatuko dira. Ondoren, sustraiak lurrez estaliko dira, sustraiaren luzeraren bikoitza den altueraraino. Mintegiratze prozesuan ez da aire ganberarik utziko sustraien artean, lehortzea ekarriko lukete eta.

Ondoren, lurra pixka bat trinkotuko da eta ureztatu egingo da. Landare loteak gehienez ere 5 egunez egongo dira mintegiratze gunean. Eremu hori itxita egongo da, ganadua sar ez dadin.

podrían aceptarse las siguientes regiones de procedencia: nº 7 Litoral Vasco-Navarro.

La empresa contará con la asesoría técnica del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats con respecto a la idoneidad y la disponibilidad de la planta. No se prevé la modificación de las procedencias de los materiales de reproducción, aunque se podrían variar las cantidades en previsión de inexistencia de alguna de las especies en los viveros. Todo ello, previa autorización del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats.

**3.2- Ahoyado y plantación.**

El marco de plantación será 3 m x 3 m de forma que las columnas queden perfectamente alineadas según la línea de máxima pendiente. Se evitarán las zonas de piedra y las zonas de cabida cubierta probable de la vegetación preexistente. La plantación se realizará de forma que en cada fila se mezclen las diferentes especies de manera no uniforme. Aunque el marco teórico de plantación es 3x3 prevalece a éste el criterio de respetar la regeneración natural existente lo que aminorará la cantidad de planta necesaria que se estima en un máximo de 950 plantas/ha.

El ahoyado será manual de dimensiones 40 x 40 x 40 cm. De la tierra extraída se depositarán los últimos 20 cm en el mismo hoyo una vez realizada su remoción y el resto de la tierra será extraída y depositada en la parte superior de la ladera de manera que se faciliten las labores de plantación.

Si el suministro de la planta no se ajusta exactamente al ritmo de la plantación ésta deberá enviverarse en el monte. Se abrirá una zanja de 40 cm de profundidad y se distribuirán linealmente los fardos de planta, cubriéndose posteriormente con tierra los sistemas radicales hasta una altura del doble de la longitud de la raíz. Se evitarán en el proceso de enviverado, dejar cámaras de aire entre sistemas radicales que conllevarían su desecación.

Posteriormente se compactará ligeramente la tierra y se regará. Los lotes de planta permanecerán un máximo de 5 días en el área de enviverado. Este área permanecerá cerrada al acceso del ganado.

Landaketa lurra prestatu eta gutxienez 2 astera egingo da. Landareen sustraiak landaketarako konformazio egokirik ez badu, moztu egingo dira.

Landareen sustraiak nahitaez lokaztu egingo dira landatzeko. Horrela, sustraitzea erraztuko da eta, landaketaren unera arte, sustrai finenak lehortzea saihestuko da. Haize egunetan landarea manipulatzean kontu handiz ibili behar da, eta landatzaileek behar baino landare gehiago garraiatuko dute, lehortzea saihesteko.

Landarea erabat bertikala sartuko da zuloan, sustraiak luzatuta eta zuzen. Lurra behar bezala zapalduko da, eta landarearen sustraiaren lepotik zentimetro bat gorago geratuko da.

Mintegitik obrara garraiatzea adjudikaziodunaren kontura izango da, Aldundiaren beraren plantan izan ezik, orduan obran entregatuko baita.

**4.- LANEN KONTROLA.**

Lanak eta bere sekuentzia Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuko langileen bidez kontrolatuko da. Baldin eta enpresa adjudikaziodunaren eta Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren artean zalantzarik edo desadostasunik sortzen bada lanak interpretatzeko moduari buruz, Zerbitzuaren alde ebatziko dira zalantza edo desadostasun horiek.

Foru Aldundiak mendian lan egiten duten kontratistei eskatu ahal izango die langileen laguntza eta baliabide materialak ematea, lan egiten duten lekutik hurbil gerta daitezkeen suteak itzaltzeko (7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, 85.7 artikulua, GAO 2006/10/26).

Lanak ziurtatzeko, landaketa lanetan sortu eta mendikoak ez diren hondakinak erabat aterako dira eta baimendutako lekuetan utziko dira.

La plantación se realizará al menos 2 semanas después de la preparación del terreno. Las plantas cuya raíz no tengan una conformación adecuada para la plantación deberán recortarse.

Las raíces de las plantas, se embarrarán obligatoriamente para su plantación; con objeto de facilitar su arraigo y evitar la desecación de las raíces más finas en su manipulación hasta el momento de la plantación. Se extremarán las precauciones en la manipulación de planta los días de viento, cuidando los plantadores de transportar más planta que la justa para evitar su desecación.

La planta se introducirá en la hoya totalmente vertical, con la raíz extendida y recta. El terreno se apisonará convenientemente, quedando éste un centímetro por encima del cuello de la raíz de la planta.

El transporte del vivero a la obra es por cuenta del adjudicatario excepto en la planta propia de diputación que se entregará en obra.

**4.- CONTROL DE LOS TRABAJOS.**

Los trabajos y su secuencia se controlarán por el personal del Servicio de Montes y Gestión de Hábitats del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Las dudas o discrepancias que pudieran surgir entre la empresa adjudicataria y el Servicio de Montes, acerca de la forma de interpretar los trabajos, se resolverán a favor de éste último.

La Diputación Foral podrá exigir a los contratistas que operen en el monte, la asistencia tanto de personal como de medios materiales para las labores de extinción de posibles incendios que puedan producirse en las zonas próximas a donde desempeñan su labor (Art. 85.7 de la Norma Foral 7/2006 de 20 de octubre BOG 26/10/2006).

Para la certificación de los trabajos, se exigirá que los residuos generados de los trabajos de plantación y ajenos al monte, se extraigan en su totalidad y se depositen en lugares autorizados.

## 5.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Laneko segurtasun eta higieneari buruz dauden xedapen guztiak beteko ditu kontratistak. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa; 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa; eta 1.215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa; beraz, lan istripuei buruzko inguruabar guztia kontratisten eta ez beste inoren erantzukizunekoa da. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango enpresak ez baditu betebehar horiek betetzen.

Baso lanari berezkoak zaizkion ohiko arriskuez gain, badaude ere aldapa hausten den hainbat eremu, zapaldak eta luiziak direla eta; aprobetxamendu hidraulikoko kanal bat (Ameraun); eta hari lotutako linea elektrikoa.

## 5.- SEGURIDAD Y SALUD.

El contratista cumplirá con todas y cada una de las disposiciones vigentes sobre seguridad e higiene en el trabajo. Ley 31/1995 de 8 de noviembre, Real Decreto 773/1997 de 30 de mayo y Real Decreto 1.215/1997 de 18 de julio, siendo de su exclusiva responsabilidad todo lo referente a accidentes de trabajo. El incumplimiento de estas obligaciones no implicará responsabilidad alguna para la administración contratante.

Se advierte, además de los riesgos habituales inherentes al trabajo forestal, de la presencia de zonas de ruptura de pendiente debido a bancales y a desprendimientos, presencia de un canal de aprovechamiento hidráulico (Ameraun) y línea eléctrica asociado al mismo.

## 5.- GEHIENEKO AURREKONTUA

Agiri honetan araututako lanen neurketa eta gehienezko aurrekontua taula honetan laburbiltzen dira:

## 6.- PRESUPUESTO MÁXIMO.

La medición y presupuesto máximo de los trabajos regulados por este pliego se resumen en este cuadro:

| Kontzeptua<br>Concepto | Unitateak<br>Unidades | Unitateko prezioa<br>Precio ud. | Aurrekontua<br>Presupuesto |
|---|---|---|---|
| Aldez aurreko eskuzko ekintza / Acción previa manual | 26,47 ha | 1.000 €/ha | 26.470 € |
| Lurra zulatzea eta landatzea / Ahoyado y plantación | 28.234 ud. | 1,1 €/ud. | 31.057,4 € |
| Landarea* / Planta* | 25.000 ud. | 1 €/ud. | 25.000 € |
| **GUZTIRA / TOTAL** | | | **82.527,4 €** |

* gainerako landareak, zulo kopurua osatu arte, gure mintegikoak dira.

*resto de planta, hasta completar el número de hoyos, procede de nuestro vivero

Aurrekontu osoa **82.527,4** €-koa da, eta aurrekontu partida hauen kontura esleituko da:

41.263,70 € aurrekontuko 1 0450 500 601 02 05 2021 kontu sailaren kargura.
41.263,70 € aurrekontuko 5 0450 500 601 02 05 2022 kontu sailaren kargura.

El presupuesto global asciende a **82.527,4 €** que se adjudicarán con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

41.263,70 € a la partida 1 0450 500 601 02 05 2021
41.263,70 € a la partida 5 0450 500 601 02 05 2022

Aurrekontu horretan sartzen dira, soldata-kostuaz gain, langileen Gizarte Segurantzako kotizazioak, kontratua

El presupuesto señalado incluye, además del costo salarial, cotizaciones a la Seguridad Social del personal, servicios y suministros

betetzeko behar diren zerbitzuak eta horniketak eta kontratuarekin zerikusia duten beste alderdi batzuk, esate baterako, BEZa, mozkin industrialak, gastu orokorrak eta zeharkako kostuak etab.

Kontratu hori betetzeak Gipuzkoako Foru Aldundiari ekarriko dizkion betebehar ekonomikoei erantzuteko behar adina baliabide dago, eta aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da.

Obra ordainduko da benetan gauzatutako obra unitateen bukaerako neurketa egitean, hektareatan eta zehaztutako gainerako obra unitateetan neurtuta.

Aurrekontu horretan sartzen dira, soldata-kostuaz gain, langileen Gizarte Segurantzako kotizazioak, kontratua betetzeko behar diren zerbitzuak eta horniketak eta kontratuarekin zerikusia duten beste alderdi batzuk, esate baterako, BEZa, mozkin industrialak, gastu orokorrak eta zeharkako kostuak etab.

## 7.- ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKO OSAGARRIA.

Eskaintza ekonomiko onenari adjudikatuko zaio, aurkeztutako gainerako eskaintzen aldean beherapen ausartegitzat kalifikatzen ez bada. Erabiliko den formula administrazio baldintzen agirian jasoko da.

Obraren konplexutasuna dela eta, obra bisitatu duten enpresen eskaintza ekonomikoak bakarrik onartuko dira. Horretarako, basozainak **egiaztagiri bat emango die, non bisitaren data adieraziko den eta enpresaren ordezkariak** baldintza agiri horretan jasotako puntuak ulertu dituela eta tokian bertan izan daitezkeen arriskuak antzeman dituela azaltzen den.

Era berean, eskaintza ekonomikoarekin batera, **mintegiko landarearen erreserbaren egiaztagiria** aurkeztu beharko da, materialaren kalitatea eta haziaren jatorria egiaztatzeko.

comprendidos en la ejecución del contrato y cuantos otros estén referidos con el mismo, tales como IVA, beneficio industrial, gastos generales, costes indirectos, etc.

Existe el crédito preciso para atender a las obligaciones económicas que se derivan para la Diputación Foral de Gipuzkoa del cumplimiento de dicho contrato, llevándose a cabo su financiación con cargo a la partida presupuestaria.

La obra se abonará a medición final de las unidades de obra efectivamente ejecutadas, midiéndose éstas en hectáreas y resto de unidades de obra especificadas.

El presupuesto señalado incluye, además del costo salarial, cotizaciones a la Seguridad Social del personal, servicios y suministros comprendidos en la ejecución del contrato y cuantos otros estén referidos con el mismo, tales como IVA, beneficio industrial, gastos generales, costes indirectos, etc.

## 7.-CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN Y DOCUMENTACIÓN TÉCNICA COMPLEMENTARIA.

La obra se adjudicará a la mejor oferta económica siempre que no esté en baja temeraria respecto del resto de las ofertas presentadas. La fórmula que se utilizará se recogerá en el pliego de condiciones administrativas.

Dada la complejidad de la obra sólo se aceptarán ofertas económicas de empresas que hayan estado visitando la obra para lo que el guarda les expedirá un **justificante donde se recogerá la fecha de visita y que el representante de la empresa** ha comprendido los puntos recogidos en este pliego y el reconocimiento de los riesgos sobre el terreno.

Así mismo, acompañando a la oferta económica se deberá presentar **justificante de reserva de planta de vivero** con el objeto de comprobar la calidad del material y la procedencia de la semilla.

**8.- EGIKARITZEKO EPEAK.**

Aldez aurreko ekintza 2021eko abenduaren 20a baino lehen amaitu beharko da.

Landaketa 2022ko martxoaren 31 baino lehen amaitu beharko da.

**8.- PLAZOS DE EJECUCIÓN.**

La acción previa deberá concluir antes de 20 de diciembre de 2021.

La plantación deberá concluir antes del 31 de Marzo de 2022.

Donostia, 2021eko abuztuaren 31a / San Sebastián 31 de agosto de 2021

MENDIAK ETA HABITATAK KUDEATZEKO ZERBITZUBURUA

Sin: Ismael Mondragón Laskurain